

ZIBERGELA



Aplikazio guztiak kontu batera eta domeinu batera lotuak eskaintzen ditu Lynksee zerbitzuak.

IBON AIZPURUA UGARTE

Elekta ingeniari itzaz linguistikoa

Blog bat *Blogari.net*-en, argazkiak Flickr-en, orri pertsonala, wikia; 2.0 motako hainbat eta hainbat aplikazio erabiltzen dira gaur egun, bakoitzean kontu bat ireki behar da eta kudeatzeko gune bakoitzera joan behar da banan-banan. Zerbitzu horiek guztiak batean eskaintzen ditu Lynksee zerbitzuak: Web 2.0 garaiko aplikazio nagusiak kontu batera eta domeinu batera lotuak.

Zerbitzu horrek ondorengo aplikazioak erabiltzeko bidea ematen du oso modu errazean: bloga WordPress plataforman, argazki albuma Galleryrekin, wikia MediaWiki bidez, foroak edo eztabaidaguneak PhpBBen eta orri pertsonala Joomla edukit kudeatzaile ezaguna erabiliz. Guztiak doan, eta kudeaketarik simple eta garbiarekin.

Hasiera

Lynksee webgunera jo, eta erregistratzea da lehenengo egin beharrekoa; hor ematen den erabiltzaile izena garrantzitsua da, ondoren sortuko diren aplikazioetan erabiltzaile-izen hori erabiliko baita domeinua osatzeko. Domeinu nagusia *erabiltzaile.lynksee.com* izango da. Behin erregistroa egin ondoren, sortu berri den kontuan sartu, eta han ikus daitezke eskura dauden aplikazioak eta bakoitzaren domeinua.

Erabiltzaile bakoitzak dituen beharren arabera tresna batzuk erabiliko ditu eta beste batzuk ez, horretarako, kudeaketa atalak aplikazioak instalatu eta desinstalatzeko aukera ematen du. Aplikazioaren gainean klik egitea nahikoa da instalazioa egin dadin, eta desinstalatzeko ere beste klik bat egitea nahikoa da. Ez da baimeak konfiguratzeko ibili behar ez, eta ostatatzea egiteko kudeaketa lanak egiten ere guztia oso era garrantzitsuan egiten da. Konfigurazio orrian domeinuak berbideratzeko aukera ere eskaintzen da, hau da, *www.niredomenua.com* helbidea Lynksee-ko kontuarekin lot daiteke.

Hasierako pauso horiek eman ondoren, aukeraturako aplikazioak erakusten dituen orri nagusi bat sortzen da; han, blogeko azken sarrerak, igotako azken argazkiak edota eztabaidaguneko azken mezuek erakusten dira.



Web 2.0 guztia toki batean

Beharren arabera aplikazioak instala eta desinstala daitezke kudeatu atalaren bidez

Hizkuntzen eskaintzen artean euskara sartzeko asmoa dute egileek hurrengo bertsioan

Erabilera

Edukiak kudeatzeko, aplikazio bakoitzak eskaintzen duen kudeaketarako atala erabiltzen da; horretarako kontuak automatikoki sortuak izan dira hasierako erregistratzean, eta, guztietan, erabiltzaile-izena eta pasahitza berberak dira. Aplikazio bakoitzaren kudeaketa atala erabiltzea arrazoizkoa da; izan ere, WordPress-ek esaterako, bere plataformaren bertsio berria argitaratzen duenean Lynksee plataforman ere eguneratu egiten da eta aplikazio bakoitzaren mantentze-lana saihestu egiten da. Tresna horien guztien integrazioan metatzen dituzte beren indarrak.

Kudeaketarako argibideak emateko wiki bat dago; han, informazio zabala eskaintzen da eta tresna bakoitzaren kudeaketarako dauden beste eskuliburu eta tutorialen gida zabal bat ere eskaintzen da.

Kode irekiko plataforma

Plataforman integratzen diren aplikazioak bezala, Lynksee bera ere GNU/GPL lizentziarekin garatua dago, hau da, kode irekikoa da. Horrela, edozeinek jaitz dezake plataformaren iturburu kodea, nola garatuta dagoen ikusi, aldatu eta berriro banatu. Hori horrela izanik, edonork muntatu dezak Lynksee plataforma bat; ikastetxe batek, herriko kultur taldeek, etabarrek. Garatzaileek diotenez, oraindik kodea ez daukate %100 amaitua, eta ez dute gomendatzen jaitsi eta probak egiten hasiatek Beta fasea amaitu arte.

Etorkizuna

Nahiz eta Web 2.0 motako tresna garrantzitsuenak eskaintzen dituzten, oraindik harago heldu nahi dute, eta, horretarako, Moodle eta eFiction tresnen integrazioa iragarri dute hurrengo bertsiorako. Hizkuntzei dagokienez, une honetan gaztelania, ingelesa, katalana eta italiara eskaintzen dituzte, baina euskara ere sartzeko asmoa dute hurrengo bertsioan.

Plataforma interesgarria, programazio informatikoaz jakin gabe norbere Interneteko eduki osoa gune bakar batean izateko.

Lynksee:
www.lynksee.com

Zibergelako artikuluz guztiak:
www.baleike.com/blog/zibergela



Linuxen banaketa berriak kalean

Azken egunetan Linux sistema eragileko bi banaketa nagusiak bertsio berriak kaleratu dituzte. Lehenik, Ubuntu bere 7.10 bertsioa Gutsy Gibbon izenarekin kaleratu zen, eta, orain egun gutxi, Fedora bere Core 8 bertsioa kaleratu du. Sartu dituzten berrikuntzak asko dira, baina laburbilduz, garrantzitsuenetakoa erabiltzailearen interfazearen nabaritutako da; Ubuntu Gnome 2.20 sartu du, eta Fedora bere Gnome 2.20an oinarritzen den Infinity interfazea dakar. Gainera; leihoen kudeaketarako, Compiz Fusion integratuta dakarte bertsio berriak, eta pakete horrekin Mac OS X-ko efektu bisualen antzekoak lortzen dira.

Horrez gain, Bluetooth konexioan hobekuntzak, driverren kudeaketa hobetua eta zerrenda luze bat osatzen duten hobekuntzak dakartzate bi banaketa ezagun horiek.

Jarri zuk prezioa diskoari

Horixe da Radiohead musika taldeak esan duena, bere disko berria kaleratu duenean. Erresuma Batuko taldeak duela aste batzuk jarri zuen bere lan berria webgunetik jaisteko moduan, baina ez zion prezio jakin bat jarri. Erabiltzailearen esku utzi zuen haien diskoa jaisteagatik ordainduko lukeen prezioa erabakitzea. Baina badirudi kontuak ez zaizkiela aurreikusitako bezala ateratu; izan ere, jaitsi duten bostetik hiruk ezer ez ordaintzea erabaki baitute. Batez beste, deskarga bakoitzeko 4 euro ordaindu omen dute erabiltzaileek.

Radiohead ez da izan lehenengo taldea horrelako ekimen bat egiten; lehenago, esaterako, Nine Inch Nails taldeak ere egin zuen. Talde horretako arima den Trent Reznor-ek aspalditik jartzen ditu abesti berriak bere webgunean, eta, kontratu diskografikoa amaitu den honetan, interneteko kanala oso banaketa-kanal interesgarria iruditzen zaiola esan berri du.